

URTEKO IRAKURKETA ETA ONDORIOAK 2023



Izenburua:

Urteko irakurketa eta ondorioak 2023

Egilea:

Euskaalgintzaren Kontseilua

Argitalpen-data:

2024ko urtarrila

Ale kopurua:

150 argitalpen

Digitala:

www.kontseilua.eus atarian eskuragarri

AURKIBIDEA

1. SARRERA: HESIA ZUBI	4
2. ESTATUSA: OFIZIALTASUN AUKERA EUROPAN	6
3. HIZKUNTZA-POLITIKA: EZIN JAUZI EGIN	10
4. HEZKUNTZA: AUKERAK GALTZEN	14
EAE: LEGE BERRIA, OINARRI ZAHARRAK	15
IPAR EUSKAL HERRIA: LARROSA ADINA ARANTZA	16
NAFARROA: HESITUTAKO EREMUA GAINDITU EZINIK	17
5. OLDARRALDIA: TXARRENARI ONENA	18
6. HERRI GOGOA, GIZARTE EKIMENA	23
7. XABIER MENDIGUREN BEREZIARTU:	
BIZITZA BAT EUSKARARENTZAT	26
8. AURRERA BEGIRA: AKORDIO SOZIOPOLITIKO BERRI BAT	
ADOSTASUNEAN ETA KONPROMISO ZIBIKOAN BERMATUTA	28

SARRERA: HESIA ZUBI



Bestela ezin, eta 2023rako euskararen normalizazio eta biziberritzean aurrera egiteko aurreikusten genituen etxeko lan nagusien azalpenarekin amaitu genuen iazko irakurketa; hau da, zango bat 2022an genuela eta bestea, jada, 2023rako urratsa egiten. Etxeko lan horien artean bi ziren nagusiak: batetik, bortitz zetorrela sumatzen genuen euskararen biziberritzearen kontrako oldarraldiari hesia jartzea. Bestetik, etorkizunera begira euskarak bizirik eta bizi irauteko dituen erronka itzelei aurre egiteko moduko jauzia eragitea hizkuntza-politikan.

Beste era batera esanda: globalizazioaren goreneko aldaera honek bizimoduko eremu guztiak baldintzatzen dizkigun garai honetan euskal hiztunon komunitatearen –eta, horrenbestez, hizkuntz, kultur eta nortasun aniztasunaren– etorkizuna bermatzeko adinako politika publiko sendoak pentsatzeko, lantzeko eta indarrean jartzeko bidea zabaltzea.

Egitekoen aurreikuspena ez ezik, lanerako erabiliko genuen tresna nagusia ere zehaztu genuen dokumentu berean: adostasunaren bilaketa. 2021ean abiatutako Batuz Aldatu dinamikan landutako adostasun soziala ipar, aurrera begirako erronketarako, hizkuntza-auziaren eta euskararen normalizazioaren gaineko adostasun soziopolitiko sendo bat helburu.

Abiaturuan aipatutako bi eginkizun horietan, bigarrena zen –hizkuntza-politikan etorkizunerako jauzia eragitea– Euskalgintzaren Kontseiluaren ikuspegitik garrantzitsuena, ardatzekoena, pizgarriena. Horretan jarri nahi genituen indarrak. Aurrera egiteko bide orrian, adostasunean. Baina, orain, 2024 hasi berri honetan atzera begira jarri eta oso bestelakoa da iazko jardunaren argazkia: oldarraldiari aurre egiten aritu behar izan dugu buru-belarri, hau da, etorkizunera gabe iraganera eramaten gaituzten zereginetan.

Handia izan baita oldarraldia, bereziki, arlo juridikoan: batetik, ugaritu egin dira euskara normalizatzea xede duten neurri, arau eta legeen kontrako epaiak. Bestetik, larritzen eta sakontzen joan da haien heina eta eragina, administrazioan euskararen sustapen neurriak hartzeko gaitasuna auzitan jartzearaino. Halaber, oldarraldi horrek



Kontseiluaren 2023ko Batzar Nagusia, martxoan Gasteizen.

ispilu politikoa ere badu, sententzia soka luze honen bidez zalantzan jarri dena hizkuntza-politika egiteko azken hamarkadetako eredua bera baita. Horra paradoxa: euskalgintza askotarikoak aho batez eredu hori gainditzea eta irmotzea ezinbestekoa dela argi duenean, atzerakada ezarri nahi du oldarraldiak. Beraz, horren guztiaren ondorioz, lan eta indarren zati gehiena euskararen normalizazioaren kontrako olatu erreakzionarioari hesia jartzeko baliatu behar izan du Kontseiluak; aurrera egitean ordez aurre egiten.

Baina arestian esan bezala, adostasunaren bilaketa izan du hesi hori ezartzeko tresna; hesia zubi bihurtzeko bokazioa. Horregatik, sinetsita gaude Kontseiluak, eta euskalgintzak, oro har, 2023an egindakoetako asko, sarritan ezarian bada ere, etorkizunerako jauzi hori emateko oinarriak izango direla; zehazki, sinetsita gaude, euskararen normalizatorako akordio soziopolitiko berri baterako zumeak josi direla. Aurrera egiteko hazia erein dela.

Nolanahi dela, zume horien zehaztapenetan eta 2023ko gertakari eta jardunen ondorioetan sartu aurretik, egoki eta ezinbesteko da hizkuntza-auziari lotuta urteak eman dituenak errepasatu eta kokatzea.

ESTATUSA: OFIZIALTASUN AUKERA EUROPAN



Minorizatutako hizkuntza baten normalizazio eta biziberritzea estatusaren auzitik hasten da. Hau da, hizkuntza horri eta hizkuntza horretako hiztunei, beren eremuan ezagutza politikoa –eta horren ondoriozko eskubide eta babes juridikoa– eskaintzetik. Beste era batera esanda, ofizialtasunaren aitortzatik, nor izatearen aintzatespenetik. Esperientziak erakusten du ofizialtasunaren aitortza ez dela bere hutsean minorizazioa gainditzeko tresna automatikoa, baina hori gabe oso zaila dela egiazko normalizaziorik iristea.

Jakina denez, euskara bere eremuko zati batean baino ez da ofiziala: Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Euskararen Legeak ezarritako zonifikazioaren arabera ‘euskaldun’ izendatutako eremuan. Aldiz, ‘mistoa’ eta ‘ez euskalduna’ izendatutako eremuetan –hots, Nafarroa gehienez– ez da ofiziala; egoera berean da Ipar Euskal Herri osoa. Horrenbestez, euskalgintzaren hamarkadetako eskaera da euskarak ofizialtasuna behar duela eremu osoan, minorizazioa gainditu ahal izateko; aldarrikapen historikoa Nafarroan eta Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoan.

Arlo horretan ezusteko albisteak sortu zen 2023ko abuztuan. Espainian hauteskundeak egin berri, alderdi espainiar nagusientzako emaitza zailak, eta, ondorioz, berriro gobernua osatzeko negoziazio korapilatsua Pedro Sánchez jarduneko presidentearentzat. Testuinguru horretan hizkuntzen auzia erdigune politikoan kokatu zen, batik bat, Katalunian ardazten diren alderdien ekimenez. Batetik, gazteleraz besteko hizkuntza ofizialak –euskara, galiziera eta katalana– Espainiako Kongresuan erabili ahal izatea eskatu zuten. Bestetik, Europan ofizialtasuna aitortzea aipatutako hiru hizkuntzei: euskarari, galizierari eta katalanari.

Horrela, 2023ko irailaren 19an jarri zen indarrean Espainiako Kongresuan gazteleraz besteko hizkuntzetan mintzatu ahal izateko aukera. Kontseiluaren irudiko, berandu datorren aurrerapauso txikia izan da hori, eragin erreala baino sinbolikoagoa duena. Ez dezagun ahaztu, euskaraz bizi nahi dugun herritarron eskubideak bermatzeko bestelako lehentasunezko neurri

batzuk badirela, gure eguneroko bizitzan eragina izango luketenak: Estatuaren menpe dagoen justizia administrazioan euskararen erabilera baimentzeko Botere Judizialaren Lege Organikoaren 231. artikulua aldatzea, edota azken aldian jasaten ari garen oldarraldi judizialari etena jarriko dioten neurriak hartzea, kasu. Baina aitortza bat den heinean, ongi-etorria, dudarik gabe.

Zabaldutako aukera horren aurrean Euskal Herrian ardazten diren alderdietako ordezkariak euskaraz beren hitzartzeen zati txiki bat baino ez egitea erabaki dute. Alde horretatik, Kontseiluaren ustez engaiamendu handiago bat adieraztea egokia litzateke, hizkuntzen normalizazio prozesuetan prestigioaren eta erreferentzialtasunaren lanketa ezinbestekoa baita, eta, ondorioz, politikari eta agintariak eredu izatea. Baina konpromiso hori Eusko Legebiltzarreko edo Nafarroako Parlamentuko erabilera handituz sendotu beharko litzateke lehenik eta behin.

Baina, dudarik gabe, Europan hizkuntza ofizial izendatzeak bestelako sendotasun bat leukake euskararen normalizazio bidean. Izan ere, produktuen etiketak, sendagaien prospektuak edota hainbat jakinarazpen eta iragarki ofizial euskaraz ere egin beharko lirateke. Baita ere Europako Komisiotik bideratzen diren hezkuntza eta kultura programa desberdinetan euskarazko proiektuak bultzatu ahalko lirateke, eta ispilu zehatza izango luke, esaterako, egun edozein hizkuntzaren bizigarritasunerako hain erabakigarriak diren ikus-entzunezkoen sektorean. Edota administrazio eta erakunde desberdinen arteko harremana euskaraz izatea ahalbidetuko luke, bai Euskal Herrian, baita Europako Batasuneko erakunde desberdinekin ere.

Laburbilduz, euskararen ofizialtasuna indartuko litzateke, eta, aldi berean, oraindik ofizialtasun estatistik ez duen eremuekiko paradoxa handituko litzateke: finean, euskara ofiziala izango bailitzateke Europako Batasuneko organoetan, baina, ez, ordea, Nafarroako zati handienez eta Ipar Euskal Herrian. Beste era batera esanda, Angeluko herritar batek Europar Batasuneko instituzioekin euskaraz aritzeko aukera izango luke, eta, ez, ordea, bere Herriko Etxearekin. Gauza bera gertatuko litzaioke tuterar bati.



ELEN sareko kideak Europar Batasuneko Kontseiluari ofizialtasuna eskatzen, Europako Parlamentuan.

Nolanahi dela, Europar Batasuneko lehendakaritza bere esku zela baliatuz, joan den irailaren 19an eraman zuen euskara, galiziera eta katalana ofizial egiteko eskaera Europako Kontseilura Espainiak, gobernu berria osatzeko negoziazioetan hartutako konpromisoa betetz. Bezperan, irailaren 18an, hizkuntza horien normalizazio eta biziberritze arloan lan egiten dugun erakundeek agerraldia egin genuen Europako Legebiltzarrean, Bruselan. Hain zuzen ere, Europako Kontseiluko ordezkariak eskatzeko bidera zezatela ofizialtasuna, eta azaltzeko nolako aurrekaria eta urratsa izango litzatekeen hizkuntza-berdintasunaren alde; funtsean, European minorizatutako hizkuntzetan ardazten diren milioika herritarren eskubideak osotasunean aintzatesteko.

Aipatu bezala, irailaren 19an aztertu zen Europako Kontseiluan euskarari, galizierari eta katalanari ofizialtasuna emateko eskaera, baina espero zenaz bestera, ez zen bozkatu. Aitzitik, erabakia hartu ahal izateko elementu gehiago eskatu zituzten estatu kideetako ordezkariak: hala nola, neurri hori indarrean jartzearen diru kostua zein izango litzatekeen, edota horrek aterik irekiko lukeen beste hizkuntza batzuei ere aitortza bera egiteko. Espainiaren lehendakaritzak iraun duen bitartean, Europako Kontseiluaren hainbat saiotan izan da hizpide neurria –esaterako, diru kostua bere gain hartzeko prest agertu da Espainiako Estatu–, baina onarpenerako azken urratsa ez da egin.

Luzatze eta onarpenaren lausotze horretan eragina izan dute aukera horren kontra dauden hainbat alderdiren lobby lanak eta estatu kideetako batzuei beren baitan dituzten hizkuntza minorizatuentzat ate hori irekitzeak sortzen diren errezeloak. Azken batean, hizkuntzen auzia oso logika supremazistetan ulertzen da gune eta sektore politiko askotan, hizkuntza-aniztasuna eta berdintasuna demokratizazioan sakontzeko ezinbesteko giltzak direla aintzat hartu gabe.

HIZKUNTZA-POLITIKA: EZIN JAUZI EGIN





Konfederazioak Baionan deitutako manifestazioari babesa ematen, Kontseiluaren Batzar Nagusian.

Estatusaren auzia egoera gutxituan dagoen hizkuntza baten biziberritzerako funtsezkoa bada, hori bezain ezinbestekoa da normalizazioa bideratuko duten hizkuntza-politikak indarrean jartzea; gure kasuan, euskararen aldeko politika publiko sendoak aurrera eramatea.

Sarreran aipatu dugu etorkizun hurbileko erronka handiei aurre egiteko ezinbestekoa dela euskararen aldeko hizkuntza-politiketan jauzi bat egitea. Oraingo orain, ordea, urrun gaude horretatik, bai plangintzari, bai araudiari eta baita baliabideei dagokienez ere.

Hain zuzen ere, plangintza baten eskaera egin dio Ipar Euskal Herriko euskalgintzako eragileen bilgune den Euskal Konfederazioak EEP Euskararen Erakunde Publikoari, euskara biziberritzeko bide orri batena. Zehazki, ikerketa bat egin dezala 2050erako euskal hiztunen proportzioa %30era hel dadin. «Ez gara gehiago xintxuketan aritzen ahal. Hizkuntza ere larrialdi egoeran da, baina ez da halabeharrik. Helburu adostuekin, arabera baliabideekin eta lankidetzaren sendotasun batekin, lortuko dugu euskarari etorkizun bat ematea», jaso zuten abenduaren 15ean Senperen plazaratutako manifestuan.

Egiazko hizkuntza-politika publiko berri bat premiazkoa dela iritzi zion Konfederazioak, transmisioan, irakaskuntzan, motibazioan eta erabileran eragingo duena. Izan ere, azken Inkesta Soziolinguistikoak erakutsi duenez, euskaldunen

proportzioa apaldu eta apaldu ari da azken urteetan: 2006an %26,4 ziren euskaldunak, 2022an %19. EEPk 2050erako egin dituen prospekzioetan, kopurua %16etik behera jaitsiko dela aurreikusi du. Aitzitik, hizkuntza baten biziraupena bermatzeko %30ean ezartzen dute adituek hiztunen gutxieneko proportzioa. Hori dela eta, larrialdi linguistikoak aintzat hartzeko eta kopuru hori iristea xede duen hizkuntza-politika berria abiatzeko galdegin du Konfederazioak, plangintza egoki batetik abiatuta.

Araudiari dagokionez ere, eskaera zehatza plazaratu zuen: Frantziako Konstituzioko 2. artikulua aldatu eta euskararen ofizialtasuna lortu bitartean Ipar Euskal Herriak hizkuntza berreskuratzeko esperimentazio lurralde izendapena lortzea.

Nafarroatik ere ez da albiste onik iritsi arlo honetan. Gobernu berria eratu zen joan den abuztuan, eta Kontseiluak kezkaz hartu zuen akordio programatikoan hizkuntza-auziaren eta euskararen normalizazioaren arloan jasotzen dena; edo, zehatzago, jasotzen ez dena: plangintza. Izan ere, aurreko legegintzaldian Nafarroako Gobernuak prozesu partehartzaile zabal bat egin zuen, zeinetan Nafarroa osoko gizarte eragileek eta alderdi politiko guztiek parte hartu eta ekarpenak egin zituzten. 2021ko abenduaren 21ean, Euskararen Nafar Kontseiluak planaren azken proposamena bozkatu eta onartu egin zuen. Baina, segidan, kutxa batean sartu eta blokeatu egin zuen gobernuak.

Gobernu akordio berrian, oster, hitzarmenetik desadostasunen zakura pasa da plan estrategikoa abian jartzea. Gertakari larria da hori, bide orririk gabe, helburu, tresna, neurgailu eta baliabideak finkatu gabe, ezinezkoa baita politika publiko eragin-garririk egitea, jakina, baita hizkuntzaren arloan ere.

Araudiari dagokionez, oraindik ere administrazioan euskararen ezagutza baloratzeko dekretua ez da argitaratu. Hots, beste urtebeteko atzerapena, eta, bitartean, ehunka lanpostutan ez da euskara merezimendu gisara ere aintzat hartu. Gainera, dekretuaren gainean izan diren azken albisteak aintzat hartuz gero, ezin balorazio onik egin. Izan ere, euskara merezimendu gisa eremu mistoko lanpostu zehatz batzuetan soilik hartuko da, eta, ondorioz, oso eragin murrizta izango du. Are, eremu euskaldunean epaitegietan baliogabetutakoak baino baldintza murriztagoak ezartzen dira; esan daiteke auzitegiak baino atzerakoiago gertatzen dela dekretua.

Euskal Autonomia Erkidegoan, berriz, datozen 10 urteetan erakunde publiko guztientzako plan gidaria izateko bokazioa duen Euskararen Sustapenerako Ekintza Plana –Aroa izenekoa– onartu berri du Euskararen Aholku Batzordeak, eta Eusko Legebiltzarraren oniritzia jasotzeko zain da orain. Hizkuntza-politikarako marko estrategikoa bertan jasoko da, euskal hiztun aktiboak eta ahaldunduak dituen komunitatea indartzea helburu hartuta, eta parte-hartzea eta zeharlerrotasuna metodologiaren ardatzean jarritz.

Araudiari dagokionez, Euskal Sektore Publikoan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Prozesua Arautzen duen Dekretua azken txanpan sartua da. Argitaratu den azken bertsioari Kontseiluak ikusten dizkio alderdi interesgarriak, hala nola, eragin esparrua administrazio osora hedatzea –baina Justizian eta Ertzaintzan 2033 arte ez da indarrean jarriko–; hautaketa prozesuak euskaraz egitea; hizkuntza-eskakizuna azterketan bertan egiaztatzea; herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko intentzioa; gaitasun asimetrikoak; euskararen planifikazioa arautzea; derrigortasun-indizea gainditzeko prozedura bat jasotzea...

Aldiz, hasierako zirriborroan ontzat jo genituen zenbait elementu erori egin dira. 45 urtetik gorakoentzat salbuespena kentzea, eskatutako hizkuntza-eskakizuna baino goragoko maila baloratzeara... Eta horiez gain, baditu hobetu beharreko beste zenbait elementu: administrazioa euskalduntzeko epea ezartzea; derrigortasun-daten eta derrigortasun-indizeen eskema gainditu beharra; administrazioa euskalduntzeko neurri eta baliabideen falta... Kontseiluak funtsezkoa ikusten du epeen kontua, orain baldintza errealak baitaude administrazioren euskalduntze prozesuari epemuga jartzeko, baina ez da halakorik egin.

Azken batean, 2023an euskararen normalizaziorako politika publikoen arloan gertatu dena errepasatuta, ondorioa da oraindik urrun gaudela etorkizunera begirako hizkuntza-politiken arloko jauzia egitetik.



Euskararen ofizialtasuna eskatzeko adierazpenaren aurkezpena, Nafarroako Parlamentuaren aurrean.

HEZKUNTZA: AUKERAK GALTZEN



Hezkuntza sistema funtsezko elementua da gutxitutako hizkuntza baten berreskuratze, normalizazio eta biziberritze prozesuan: transmisioa bermatzeko bidea da. Azken hamarkadetan euskararen normalizazioan egin diren urratsen zutoin garrantzitsuenetakoa hezkuntzatik egindako ekarpena izan da dudarik gabe, ezagutza belaunaldi berriei transmititu eta jendarteko geruza askotarikoetara hedatu gabe nekez ematen baita beste pausurik.

Txosten honetan azpimarratzen ari garenez, azkenaldian hainbat dira euskararen normalizazio eta biziberritze prozesuan bultzatzeko hizkuntza politiketan jauzi bat ezinbestekoa dela adierazten diguten datu, gertakari, egitate eta etorkizunera begirako joerak, eta hezkuntza ere ez dago behar horretatik aparte. Halaber, 2023an asko izan dira hezkuntza arlotik hizkuntza-auziari lotuta iritsi diren albisteak.

EAE: lege berria, oinarri zaharrak

Abenduaren 21ean onartu zuen Eusko Legebiltzarrek Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Hezkuntza Lege berria, eta, Kontseiluaren iduriko, tamalez, ez da izango euskararen etorkizuneko belaunaldietan ezagutzaren unibertsalizazioa bermatzeko urrats sendo eta irmoa emango duen legea. Aitzitik, kezkarako elementuak jasotzen ditu, hala nola, hizkuntza-kudeaketaren eta euskalduntzearen ikuspegitik hezkuntza komunitatearen gehiengo handiak aspalditik iraungitza jotzen duen hizkuntza-ereduen balioztapena berariaz jasotzea.

Baina sakonagoa da kezka. Hala adierazi zuten abenduaren 18an, legea onartzeaz zela, Kontseiluak ez ezik, lege berri honen prozedurak iraun duen bi urteetako epean bidelagun izandako eragileek; batetik, hezkuntza komunitateko eragile garrantzitsuenetakoek (Ikastolen Elkartea, EHIGE, HEIZE eta HikHasi); bestetik, gehiengo sindikalak (ELA, LAB, STEILAS); halaber, kulturgileen eta euskalgintzaren ordezkariak.

Izan ere, Euskalgintzaren Kontseiluak horiekin denekin egin du hezkuntzan hizkuntzaren korapiloa askatu eta lege berriak etorkizuneko belaunaldiak



Hezkuntza lege proiektuari ekarpenak egiten, Eusko Legebiltzarreko batzordean.



Hezkuntzako eragile garrantzitsuenekin abian jarritako 'Euskara gehiago' sinadura bilketaren aurkezpena, Gasteizen.

euskalduntzeko –eta, horrenbestez, ezagutzaren unibertsalizazioa bermatzeko– tresna izan dadin ahalegina. Are, lortu du beste hainbat auzitan ikuspegi oso desberdinak dituzten eragile horiek gai honetan ados jartzea, batik bat, oinarri baten gainean: euskara ikas- eta irakats-hizkuntza duen eredua orokortzea dela arestian aipaturiko helburua lortzeko giltza.

Ondorio hori, eragile guzti horiekin eta hainbat aditurekin egindako lanketaren emaitza da, 40 urteko esperientziak erakutsi baitute indarrean diren hizkuntza-ereduen gainean eraikitako sistemak ez duela balio euskalduntzea bermatzeko, eta, gainera, segregaziorako tresna gertatzen direla.

Urtean zehar hainbatetan plazaratu du ikuspegi hori Kontseiluak, eta hainbatetan saiatu da noranzko horretan eragiten: apirilean lege egitasmoa aurkeztu zenean, ekainean Eusko Legebiltzarreko batzordean



Hezkuntzako, kulturako eta euskaigintzako eragileak EAEko Hezkuntza Legearen balorazioa egiten, abenduan Gasteizen.

egindako ekarpenen bidez... Baina, bereziki, irailaren erditik urriaren amaierara eragile horiekin denekin 'Hezkuntzak euskara gehiago behar du' lelopean aurrera eramandako sinadura bilketaren bidez. Euskarazko ikasteredua orokortzea eta euskal curriculum ardatz izatea ziren eskaera nagusiak, eta euskara gutxien dutenei gehiago ematea ardatz filosofikoa. Euskara gehiago eskaintzea baliabide pedagogiko, humano eta materialetan, ezagutzaren unibertsalizazioarako ezinbesteko bide. 20.000tik gora herritarren sinadurak bildu ziren, eta azaroan erregistratu ziren Eusko Legebiltzarrean.

Baina, esan bezala, ez zen lortu legearen azken testuan eragiterik, eta horrenbestez, Kontseiluak eta aipaturiko eragileek «aukera galdutzat» jo zuten EAEko Hezkuntza Lege berria. Nolanahi dela, euskararen normalizazio eta biziberritzearekiko, eta, batik bat, hezkuntza sisteman diren haur eta gaztetxoekiko konpromisoan berretsi ziren, eta azaldu aurrera begira ere lanean segituko dutela, akordio sozial zabalaren lanketaren bidez hezkuntza sistema euskararen normalizazio eta gizarte kohesio gakoetan garatu dadin.

Ipar Euskal Herria: larrosa adina arantza

Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoan euskara hezkuntza sisteman gutxieneko irmotasunez txertatzeko zailtasun handien erakusgarri da azterketak euskaraz egiteko galarazpena. Zehazki, bigarren hezkuntza zein batxilergo amaierako



Euskaigintzaren manifestazioa, apirilean Baionan.

Brebeta eta Baxoa azterketak dira debeku horien jomugan direnak. Azken urteetan, Seaskako ikastolen sareko ikasle eta gurasoek borroka handia eraman dute aurrera 'Azterketak euskaraz' lelopean, eta 2023ko udaberrian jaso zen horren fruiturik: Brebeta euskaraz egiteko baimena eman zuen martxoaren 19an Frantziako Hezkuntza Ministerioak.

Handik hilabetera, apirilaren 22an, milaka lagun batu ziren Baionako karriketan 'Azterketak euskaraz! Euskarari trabarik ez!' lelo hartuta egin zen manifestazioan. Euskaigintzak bateraturik egin zuen deialdia, eta, horrenbestez, euskararentzako politika publiko azkarrak eskatu ziren arlo guztietan. Baina, dudarik gabe, hezkuntzaren inguruko aldarrikapenak, eta, zehazki, azterketak euskaraz egiteko oinarritzko eskubidea izan zien erdigunean. Halaber, ingurumari horretan ikastoletako ikasleei Brebeta euskaraz egiteko aitortutako eskubidea eurei ere emateko galdegin zuten sare elebiduneko ikasleek.

Esaten da behartsuaren etxean pozak labur izaten direla, eta honekin ere halatsu gertatu da. Batetik, martxoan Brebeta 2023an euskaraz pasa ahal izango zela iragarri eta gutxira berretsi zituen Frantziak 2022an azterketa hori frantsesez zuzentzeri uko eginez desobedientzia praktikatu zuten irakasleen kontrako zigorrak. Bestetik, urte hondarrean jakinarazi du Hezkunde Nazionalak 2024an atzerapausoa izango dela Brebetari dagokionean: euskaraz erantzun ahal izango duten arren, azterketa bera, erantzun beharreko kontsignak, frantsesez jasoko dituzte ikasleek. Era berean, Baxoa frantsesez egitera derrigortuta segitzen dute.

Euskarazko irakaskuntzaren zabalkundean ere antzekoa da panorama. Poztekoen artean dago Seaskak bosgarren kolegioa zabaldu zuela ikasturte hasierarekin batera: Kattalin Elizalde, Senperen (Lapurdi). Izan ere, Lapurdiko beste bi kolegioak, Xalbador Kanbon eta Piarres Larzabal Ziburun, ikaslez gainezka ziren, eta ezinbestekoa egin zen ikastetxe berri bat. 82 ikaslerekin abiatu du ibilbidea.

Horren ifrentzua da, ordea, Lapurdin bertan, Beskoitzen, Herriko Etxeak ikastolari jarritako oztopoa. 2013an sortu zenetik etengabe trahatu du Herriko Etxeak ikastolaren garapen eta egonkortzea, baina 2023an goia jo du: abenduaren 18an orain arte erabiltzen dituen lurrak baliatzea debekatu dio udalak ikastolari, eta, horrenbestez, ikasturtea amaitzearekin batera aterabide gabe utzi ikastola bera. Herriko Etxearen erabaki gogor hori ia hiru mila lagunek Beskoitzen bertan ikastolaren aldeko manifestazioa egin eta hilabetera etorri zen. Nolanahi dela, Seaskak iragarri du kosta ala kosta datorren ikasturtean ere ikastola izango dela Beskoitzen.

Seaskaz gaindi murgiltze ereduak zabaltzeko eta garatzeko oztupoak, berriz, etengabekoak dira. Gogo hori duten gurasoek itzeleko ahaleginak egin behar dituzte gutxienekoak lortzeko. Testuinguru zail horren azken ondorioa da Ipar Euskal Herriko ikasle gehienek ez dutela euskararekin harremanik beren hezkuntza ibilbidean. 2023-2024 ikasturtea aintzat harturik %68 dira irakaskuntza orduetan euskararen presentziarik izango ez dutenak.

Nafarroa: hesitutako eremua gainditu ezinik

Nafarroako kopurua ez dago Ipar Euskal Herriko uruti: ikasleen %60 inguru G ereduan ari da, hau da, beren irakaskuntza programetan euskarak inolako presentziarik ez duela. Eta, jakina da, ezagutzen ez dena nekez estimatu daitekeela. Era berean, Nafarroa gehienez ere –‘eremu misto’ eta ‘ez-euskaldun’ izendatutakoetan- euskarazko ereduak zabaltzeko administrazioetik jartzen diren trabak handiak eta etengabeak dira.

2023an Iruñeko Lezkairu auzoan ikastetxe publiko berria D eredurik gabe zabaldu izana da horren adibide esanguratsua. Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentutik erabaki hori eskaririk ez zegoelako hartu zuela argudiatu zen udazkenean, ikasturtea hasi ostean. Hainbat familiaren lekukotzak erakutsi du, ordea, euren seme-alabak euskarazko ereduari matrikulatzeko asmoz ikastetxera jo zutenean berariaz esan zitzaizela ez zela D eredurik eskainiko eta, ondorioz, auzotik kanpoko beste ikastetxe batzuetan matrikulatu behar izan dituztela beren haurrak. Izozmendi baten punta da Lezkairuko adibidea.

Eta, bitartean, D eredu ahultzeko sortu zen PAI ereduak –ingelese irakats-hizkuntza duena– indartzen segitzen du Nafarroako Hezkuntza Departamentuak, Nafarroara ailegatu berri diren familiei euskarazko ereduak ez direla eurentzako egokiak adierazten... Funtsean, euskararen hedatzea galgaten.



Herriko eskola publikoan haurrek euskaraz ikasteko eskubidea dutela aldarrikatzeko elkarretaratzea, martxoan Lerinen.

OLDARRALDIA: TXARRENARI ONENA





Uliazpi Fundazioko langile batzordea, EAE Auzitegi Nagusiaren epaia arbuizatzeko elkarretaratzea, martxoan.

Berriobeiti, Antsoain, Uharte, Lizarra, Irun, Atarrabia, Zizur Nagusia, Berriozar, Laudio, udaltzaingoaren lan-poltsa, Orkoién, Barakaldo, Uliazpi Fundazioa, Bizkaiko eskola-garraioa, Erandio, EAEko Udal Legea eta garapen dekretua, Donostia... Euskararen normalizazioa eta herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea helburu duten hainbat neurri eta arauen kontrako epaiak eman dira Hego Euskal Herrian azken hilabete luzeetan.

Iazko irakurketan, 2022ari buruzkoan, jaso genuen jada oldarraldi judizial bat gertatzen ari zela; 2023an, berriz, oldarraldia berretsi ez ezik, indartu egin zen: indartu zen epai kopuruan; baina, indartu zen, baita ere, sententzien mailan, baliogabetu dutenaren sakoneran.

Jauzi kualitatibo horretan mugarri handia ezarri zen uztailaren 6an, Vox alderdiaren helegite bati jaramon eginez Espainiako Auzitegi Konstituzionalak EAEko Udal Legearen 6.2 artikulua partzialki baliogabetu zuenean; hain zuzen ere, tokiko administrazioei lege bermez euskaraz funtzionatzeko aukera ezabatu zienean. Euskararen normalizazio prozesuan aurrera egiteko tresna indartsu bat indargabetu zen horrela. Azpimarratzekoa da hala adierazi zutela ebazpenaren aurka boto partikularra eman zuten Konstituzionaleko bi epaileek, sententzia «orain arte eraikitako koofizialtasun erregimenarekin» ez zettorrela bat eta «aurreikusi ezinezko» ondorioak izan zitzakeela argudiatu baitzuten.

Hain justu, Konstituzionalaren uztailleko epaia lehen kolpea izan zen. Urrian etorri zen soka bereko



Erandioko sententziaren aurka egindako elkarretaratzea, maiatzan.



Laudioko sententziaren aurka egindako elkarretaratzea, abenduan.

bigarrena, hain zuzen ere, sententzia horretatik abiatuta EAEko Auzitegi Nagusiak Udal Legearen garapen dekretuko hainbat artikulua baliogabetu zituen; zehazki, 9.2, 11.1 eta 12 artikulua osorik eta 18, 24, 27 eta 36 artikuluen zenbait atal.

Baina, azken buruan, euskararen aldeko politika publikoen premia ez ezik egingarritasuna jarri dute zalantzan epai horiek, esaterako, telefono arretan lehen hitza euskaraz egitea diskriminatzailezat joz, eta, bidenabar, gaztelera lehenetsiz.

Finean, epai hauen guztien bidez botere judiziala hizkuntza-politika egiten ari da, botere legegilearen lekua hartuta. EAEko Udal Legearen kasuan azpimarratzekoa da kontsentsu handiz onartutako legea dela; era berean, adostasun sozial zabalen kontra ari dira epai horiek, Soziometroaren arabera, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako lau herritarretatik hiruk uste baitu administrazio publikoan lan egiteko eta herritarrei behar bezalako zerbitzua emateko euskara ere jakin behar dela.

Era berean, epai horiek denak premisa faltsu batean oinarritzen den zoru diskurtsibo baten



Oldarraldi judizialari erantzunez EAEko Auzitegi Nagusiaren aurrean egindako adierazpena, maiatzean.

gainean eraiki dira: lan eskubideak eta hizkuntza eskubideak kontrajarrita daudela. Premisa horretan ez da aintzat hartzen hizkuntza-eskubideak egiaz gauzatuko badira bizimoduko arlo guztietan gauzatu behar direla, lanean barne. Hau da, hizkuntza-eskubideen parte dela lan arloan ere euskaraz egin ahal izatea. Azken batean, oldarraldi judiziala ispilu politiko eta mediatikoa duen euskararen normalizazioaren kontrako oldarraldi zabalago baten alde ikusgarriena da.

Oldarraldiak txarrerako gertakari larriak ekarri badiu ere –biziberritzean eragiteko moduko politika publikoak aurrera eramateko gero eta ziurgabetasun eta zailtasun handiagoak eta herritarren eskubideak urratzeko baldintzak areagotzea–, onerakoen artean kokatzekoa da joera honi jendartetik eman zaion erantzun zabala. Batetik, eragile sozial eta politiko asko artikulatu dira Kontseiluaren inguruan oldarraldiari hesia jartzeko, eta, beraz, euskararen normalizazioaren, hizkuntza-aniztasunaren, gizarte kohesioaren alde paratzeko. Izan ere, euskararen normalizazioan aurrera egitea gizarte kohesioan, justizia sozialean eta bizikidetzan sakontzea da. Azpimarratzekoa da eragile horietako askok euskalgintzatik kanpo dutela beren ohiko jardun eremua. Laburbilduz, ulertu da jokoan dagoena euskaldunei eta euskaltzaleen arazo batetik haragoko auzi sozial bat dela.

Artikulatze horretan, mugarria izan zen maiatzaren 10ean ehundik gora lagunek –abokatu eta juristak,



Hautetsien agerraldia Espainiako Konstituzio Auzitegiak EAEko Udal Legearen kontra emandako epaiari erantzunez, uztailan.

kazetariak, akademikoak, euskalgintzako kideak, sindikatueta ordezkariek, eta askotariko eremuetan aritzen diren pertsonak– Kontseiluaren deialdiari erantzunez Bilbon, EAEko Auzitegi Nagusiaren atarian, plazaratutako adierazpena. Bertan, oldarradiarekiko kezka eta euskararen normalizazioarekiko zein gizarte kohesioarekiko konpromisoa adierazteaz gain, azaroaren 4rako manifestazio deialdia egin zuten. Mobilizazio horretara begira adostasunak batzeko dinamika jarriko zutela martxan iragarri zuten.

Bide horretan, hurrengo mugarria izan zen Espainiako Auzitegi Nazionalak Udal Legearen 6.2 artikulua partzialki baliogabetuz emandako epaia salatzeke ehundik gora alkate eta udal hautetsik maiatzaren 10eko adierazpenaren leku berean, EAEko Auzitegi Nagusiaren atarian, egindako

agerraldia. Alkate makila eta uztaiak eskutan hartuta, EAJko, EH Bilduko eta hainbat hautagaitza independentetako udal hautetsiek egin zuten bat deialdiarekin.

Hortik aurrera, etorri ziren udazkenean kulturgileen agerraldi berezia Iruñean, sindikatu eta lan munduko eragileena Bilbon, Espainiako Estatuko hizkuntza minorizatuen normalizazioan aritzen diren erakundeena –katalanaren, galizieraren, asturieraren eta aragoieraren aldeko elkarte nagusiak–, herriz herri tokian tokiko eragileek antolatuta egin ziren dozenaka ekitaldi... Euskararen eta hizkuntza-berdintasunaren aldeko olatu bat oldarraldiari hesia jartzeko.

Eta, jakina, olatu horrek azaroaren 4an jo zuen goia: milaka eta milaka lagunek –70.000tik gora, iturri ofizialen eta hedabideen arabera– parte hartu zuten ‘Oldarraldiaren aurrean: euskararekin bat, euskaraz bat’ leloarekin egindako manifestazioan. Azken urteetan euskararen normalizazioaren alde egindako manifestaziorik jendetsuena izan zen, euskararen normalizazioaren inguruan dagoen adostasun sozial zabalaren adierazgarri. Horren ispilu izan zen, halaber, uztai politikoaren ordezkartza zabala –EAJk, EH Bilduk, Sumar-ek, Geroa Baik eta EH Baik egin zuten bat deialdiarekin–, gehiengo sindikalaren presentzia zabala, eta eremu ezberdinetako eragile sozial askorena.



Azaroaren 4ko manifestazioaren aurkezpena euskalgintzako eragileekin, Bilbon.



Manifestazioarekin bat egiten sindikatu eta lan munduko eragileak, Bilbon.



Manifestazioarekin bat egiten Espainiako Estatuko hizkuntza minorizatuen normalizazioaren aldeko eragileak.



Oldarraldi judizialaren aurka Kontseiluak deituta azaroaren 4an egin zen manifestazioa, Bilbon. (Argazkia: FOKU)



Azaroaren 4ko manifestazioaren bukaerako soka-dantza, Bilboko Udaletxean.

Manifestazioaren amaieran borondate zehatza adierazi zuen Kontseiluak: oldarraldiari ezarritako hesi hori zubi bihurtzea. Bertan batutako indarra hizkuntza-auziaren inguruko akordio soziopolitiko berri baterako txinparta bihurtzea. Laburbilduz, aurrera egitetik aurrera egitera igarotzea.

Hain zuzen ere, oldarraldiak eragindako kezka larriaren baitan eta akordio berri baterako zumeen lanketan kokatzen da azaroaren 28an Kontseiluak ordezkariak Iñigo Urkullu Eusko Jaurlaritzako lehendakariarekin eta Bingen Zupiria gobernuako bozeramaile eta Kultura eta Hizkuntza Politika sailburuarekin izandako bilera.

Baina aurreikusita oldarraldi judizialak oraingoz orain berean segituko duela, eta erabaki horietako bakoitzak euskaldunon hizkuntza-eskubideak are eta zaurgarriago egiten dituela, Kontseiluak protokolo bat landu du sindikatu, euskara elkarte eta beste zenbait eragilerekin batera. Tokian tokiko elkarten eta, orokorrean, herritarren esku jarri du protokolo hori, oldarraldiaren agerpen bakoitza ikusgarri egiteko. Izan ere, epai horiek oharkabea geratzeak oldarraldia normalizatzea lekarke, eta horrenbestez, euskararen biziberritean zein hizkuntza-eskubideetan atzera egitea normalizatzea.



Eusko Jaurlaritzako lehendakariarekin eta Kultura eta Hizkuntza Politika sailburuarekin izandako bilera, azaroan Gasteizen.



Oldarraldi judizialari tokian toki erantzuteko protokoloaren aurkezpena, azaroan Bilbon.

HERRI GOGOA, GIZARTE EKIMENA



Euskara hizkuntza minorizatua izanik, ez da dudarik urtez urte berritzen diren herri gogoak eta gizarte ekimenak ekarri dutela bizirik eta noranahiko gaurdaino. 2023a ez da izan horretan salbuespen.

Zeharka bada ere, herri gogo eta gizarte ekimen horren ispilu dira pasa den udaberrian argitaratutako azken Inkesta Soziolinguistikoaren emaitzak. Ezagutzak gora egin du: euskara ulertzeko gai direnen kopurua 1.200.000 lagunetara iritsi da. Hizketarako gai direnena, berriz, 810.000ra. Bada zerbait. Eta zerbait horretan milaka lagun horietako bakoitzak jarritako borondatea aintzat hartzekoa da. Hala ere, erabilera datuetara etorruta, ezagutzaren igoera ispatzetik urrun geratzen denez, etsirako joera zabaltzen da sarritan.

Alde horretatik, nabarmentzekoa da Iñaki Lurrebaso soziolinguistak bere doktore tesiaren bidez auzi horren gainean egindako ekarpena: ezagutza eta erabilaren arteko arrakalari gaitasun erlatiboaren ikuspegia erantsi –euskaraz edo gazteleraz aritzeko gaitasun handiago edo txikiagoak kategorizatu eta gurutzatuta– eta datuak foku horretatik xeheki aztertuta, ondorioztatu du erabilera hiztunen hizkuntza-gaitasunaren gainetik dagoela. Edo beste era batera esanda, hiztunen hizkuntza-gaitasuna ikusita handia dela euskararen egungo erabilera. Hots, borondate sendo bat dagoela guztiaren oinarrian.

Euskararen aldeko borondate eta sen hori hainbatetan sumatu da kalean, gehienetan, gizarte ekimenaren bulkadaz. Esate baterako, martxoaren 23an milaka ikasle atera ziren kalera ‘Hezkuntza euskaraz izan behar da’ lelo hartuta. Gazte Euskaltzaleen Sarea, Ikama eta unibertsitate campusetako euskara taldeak izan ziren deitzaileak.

Apirilaren 20an, berriz, ekitaldi esanguratsua egin zen Iruñean Kontseiluak deituta, Nafarroako Parlamentuaren atarian, euskara Nafarroa osoan ofiziala izan dadin eskatzeko. Dozenaka lagunek parte hartu zuten agerraldian, baina, dudarik gabe, kualitatiboki izan zen garrantzitsua. Izan ere, Nafarroa osoko 200dik gora gizarte eragilek egin zuten bat aldarrikapenarekin, gehienak, euskalgintzatik kanpokoak. Horrenbestez, gaia lantzeko eta helburua lortzeko bidean eragiteko esparru berri eta interesgarria zabaldu zen.

Illo beretik, jendetsuak izan ziren aldarrikapen beraren inguruan eta, halaber, Iruñean, maiatzean EHEk deituta egindako giza-katea eta abenduan Kontseiluak antolatuta osatutako mosaikoa. Eta, jakina, ezin ahaztu, ekainaren 10ean, berriro ere Iruñean, hainbat herritarrek deituta ‘Sorionekuak’ izenpean egindako manifestazio jendetsua. Milaka lagunek parte hartu zuten Nafarroa osoan euskaraz bizitzeko aukera zabal dadin eskatzeko.



Nafarroa osoan euskararen ofizialtasuna eskatzeko Kontseiluak deituta osatutako mosaikoa, abenduan Iruñean.

Hezkuntzako atalean aipatu baditugu ere, dudarik gabe, herri gogoaren isla dira baita ere apirilaren 22an Ipar Euskal Herriko euskalgintzak antolatuta Baionan euskarazko irakaskuntzaren alde ez ezik hizkuntza-politika azkarragoak eskatzeko egindako manifestazioa, edo azaroaren 18an Beskoitzen ikastolaren alde ia hiru mila lagun bildu zituen.

Era berean, ezin dira ahaztu oldarraldi judizialaren baitan euskararen normalizazioaren kontra aldiro-aldiro eta lekuan leku mobilizatu diren ehunka lagunak, edota azaroaren 4ko Bilboko manifestazio handian parte hartu zutenak. Ahaztu ezin diren bezala, mintzalagun ekimenen inguruan beren ekarpena egiten duten 7.000 pertsonak edota UEMako udalerriek ehun udalerriren langa gainditu dutela 2023an. Halaber, herrietako euskara elkarteen bilgune den Topaguneak 'Batera Jauzi' kongresua egin du eta erabileran jauzia bultzatzeko prestatu da, eta Euskaltzaindiak noranzko berean bultzatzeko 'Gogoetagunea' jarri du abian.

Eta 2023ari erreparatuta, ezin aipatu gabe utzi euskararen historia soziala ardatz duen 'Bizkarsoro' filma, euskararen sustapena elikatzekeo tresna bikaina. Tamalez, zinemetan euskarak presentzia hutsaren hurrengoa izan da: 563 estreinalditik 14 (%2,48) eta emanaldien %1a. Bide horretatik, euskarazko ikus-entzunezkoen aldeko 'Aldatu



'Hezkuntza euskaraz izan behar da' lelopean martxoan GESak deitutako manifestazioaren aurkezpena, Donostian.

Gidoia' ekimenak baliabide eta neurri gehiago eskatzeko sinadura bilketa abiatu zuen.

Oro har, haize kontrara bada ere, ezin aipatu gabe utzi euskaldunon komunitatea elikatzen duten ehunka idazle, musikari, antzerkigile, ikus-entzunezkoen sortzaile, pentsalari eta hedabideen emaria. Azpimarratzekoa 'Berria' euskarazko egunkariak 20 urte bete dituela, eta berrikuntza nabarmenak eginez prestatu dela komunikazioaren arloan gertatzen ari diren aldaketa itzelei euskaraz erantzuteko.

Finean, herri gogoak eta gizarte ekimenak euskararen biziberritzearen makulu sendo izaten segitzen dute.



Ekainean 'Sorionekuak' lelopean egindako manifestazioa, Iruñean.



XABIER MENDIGUREN BEREZIARTU: BIZITZA BAT EUSKARARENTZAT

2023ko urriaren 2ak albiste tristea ekarri zigun Euskalgintzaren Kontseiluko kideoi eta euskaltzaleei, oro har: Xabier Mendiguren Bereziartu hil zela. Pertsona entziklopedikoa, kultura handikoa, jakintsua, 60koetan abiatutako euskararen biziberritze dinamikan landu behar izan diren arlorik gehienetan aritu eta aditu: ikastoletan irakasle, testu liburu egile, itzultzaile, itzultzaileen trebatzaile eta gidari...

Baina Euskalgintzaren Kontseiluko kideontzat, bereziki, lehendabiziko lemazain, aurreneko idazkari nagusi. Ondorioz, berak asmatu behar izan zuen euskalgintzaren batasuna lantzen, egituratzen, leku soziala ematen eta garrantzia politikoa ikusarazten. Beti, adostasunaren lanketa ipar.

Zaila da Xabierrek emandakoa hitz bakanetan jasotzen, bizitza oso bat euskararentzat izan zuela azpimarratzen ez bada. Hil da, baina ez zaigu joan, gugan baitago.



Xabier Mendiguren Bereziartu.



Xabier Mendiguren, 1998ko Bai Euskarari jaialdian, Sadarren.



Xabier Mendiguren, Idurre Eskisabel eta Paul Bilbao idazkari nagusiak Kontseiluaren 25. urteurreneko ekitaldian, Durangon.

AURRERA BEGIRA: AKORDIO SOZIOPOLITIKO BERRI BAT ADOSTASUNEAN ETA KONPROMISO ZIBIKOAN BERMATUTA



2023ari dagokion irakurketa honen baitan, oldarraldiari buruzko atalean azaldu eta azpimarratu dugu une honetan hizkuntza-auziari buruzko adostasunen lanketak garrantzia berezia hartu duela; are, akordio soziopolitiko berri bat ezinbestekoa dela euskararen normalizazio eta biziberritzean aurrera egiteko ez ezik, gizarte kohesioari eusteko, justizia sozialean eta bizikidetzan sakontzeko.

Izan ere, hainbatetan nabarmendu dugun bezala, oldarraldi judiziala aldaera politiko eta mediatikoak ere badituen oldarraldi zabalago baten adierazpen ikusgarriena da. Sakonean, euskararen normalizazioari buruzko ikuspegi desberdinen talka ari da gertatzen. Azken batean, eztabaida sozial eta politikoa beharko lukeena, tamalez, judizializazioaren bidez ari da ebazten, dagokion lekutik kanpo, jendarteari eztabaida aberatserako aukera ebatsita.

Sinplifikazio guztiak arriskutsuak direla jakinik, baina auziaren kokapena egite aldera, bi dira lehian diren ikuspegiak. Batetik, euskararen normalizazioa herritar eta administrazioaren arteko harreman parametro hutsetara eramaten duena. Ikuspegi horren arabera, euskararen aldeko hizkuntza politiken egitekoa euskaraz ardazu nahi duten herritarrei administrazioarekiko eta zerbitzu publikoekiko harremana beren hizkuntza-hautuaren arabera jasotzeko bermea ematera mugatzen da.

Beste ikuspegiaren arabera, ordea, euskararen normalizazioak askoz ere esanahi sakonagoa du: hasteko, gizarte bizitzako eta bizimodu indibidualetako eremu guztietan gauzatu beharreko prozesua da, eta, beraz, hizkuntza eskubideak –gainerako eskubideak bezala– ez dira administrazioarekiko harremanera eta zerbitzu publikora mugatzen. Era berean, eremu guztietara zabaltzeak ulerkera indibiduala gainditu eta dimentsio kolektiboa ematen die hizkuntza eskubideei. Oso presente du minorizazio egoera, eta minorizazio egoerak gainditzea jendarte osoari dagokion ariketa dela, ez gutxitutako kolektiboari bakarrik. Beste era batera esanda, euskararen normalizazioa ez dela euskaldun eta euskaltzaleen

auzi bat, gizarte osoarena baizik. Berreskurapen, biziberritze eta eraldaketa prozesu bat dela.

Euskalgintzaren Kontseilua bigarren ikuspegi horretan kokatzen da, dudarik gabe. Horregatik ari da aspalditik adostasun soziopolitikoaren bidea jorratzen, besteak beste, ‘Batuz Aldatu’ dinamikaren bidez. Bi ardatzen gainean ezarri du hizkuntza-politika berri baten gaineko adostasun soziala: euskararen ezagutzaren unibertsalizazioan eta erabilera erosorako eremuen sorrera eta garapenean. Askotariko arloetan lanean diharduten ehundik gora eragile dira dinamika horren parte.

Itxura batean, oinarri sinpleak direla irudi lezake, baina zentzuz betetzen badira hizkuntza-auzia askatzeko giltza sendoak dira. Are, Euskalgintzaren Kontseiluaren ustez ezagutzaren unibertsalizazioa bultzatzea –herritar guztiek euskaraz ulertzeko eta aritzeko gaitasuna lortzea– da etorkizunera begira euskararen normalizazio eta biziberritzeak behar duen akordio soziopolitiko berriaren muina. Baita aldiro forma desberdinetan azaleratzen den hizkuntza-auziaren gaineko talkak gainditzeko bidea.

Azken buruan, ezagutzaren unibertsalizazioarekin bat egiteak konpromiso zibiko baten exigentzia baitakar berarekin: dimentsio kolektiboan, botere publikoei eskatzea baliabide guztiak jar ditzatela herritarren eskura euskararako irisbidea guztientzat gauzagarria izan dadin –dela hezkuntzaren bidez, dela helduen euskalduntze-alfabetatze sektorearen bidez...–. Eta maila indibidualean, euskaraz jabetzeko ahalegina egitea eta bultzatzea; batik bat, ondorengoak, etorkizuneko belaunaldiak, bide horretan jarri eta bultzatzea.

Izan ere, ezagutzaren unibertsalizazioak bakarrik ekar dezake herritar guztion hizkuntza-eskubideak bermatzea, eta normalizazio prozesuak behar duen zentzua hartzea ez ezik hizkuntza-auziari irtenbide egokia ematea. Normalizazioa administrazioak euskaldunei eskaini beharreko arreta termino hutsetan ulertzen bada, jendarte segregatu bat izango da emaitza, kohesiotik urrunduko dena eta aldiro hizkuntza-hautuen inguruko liskarretan korapilatuko dena.

Azken hilabeteotan oldarraldiaren uberan ireki den eztabaidaren parte handi bat hortxe kokatu da: normalizazioak eskatzen duen konpromiso zibikoa askatasunarekin kontrajartzeko ahaleaginean. Esate baterako, EAEko Hezkuntza Legearekin lotuta ahots bat baino gehiago aditu dugu defendatzen gurasoen ‘aukeratzeko askatasuna’ dagoela haurrek eta gazteek bizi diren eremu horretan berezkoa eta ofiziala den hizkuntza ikastearen gainetik. Hainbat auzi sozialei lotuta behin eta berriz entzuten ari garen argumentazio bera da: norberaren askatasuna jartzea, adibidez, larrialdi klimatikoari aurre egiteko ezinbestekoak diren konpromiso zibikoen aurretik, edo genero berdintasuneko gutxienekoen gainetik...

Orokorrean, Euskal Herrian zein nazioartean eztabaida soziopolitiko gehienak termino horietara makurtzen ari direla ikusten ari gara: norberaren askatasuna lehenestea edo, kontrara, besteak aintzat hartzea, konpromiso zibikoz aritzea. Euskararen normalizazioa ere, auzi soziopolitiko den neurrian, ez da salbuespen, hortxe dago kokatuta: ustezko askatasuna ala konpromiso zibikoa.

Horregatik, horixe da Kontseiluak datozen hilabeteetan bilatuko duen akordio soziopolitiko berriaren bizkarrezurra: konpromiso zibikoa euskararen ezagutzaren unibertsalizazioarekiko. Euskararen normalizazioak eta euskaldunen komunitatearen etorkizunak ez ezik, gizarte kohesioak ezinbestekoa duelako. Finean, justizia sozialean, bizikidetzan eta demokratizazioan sakontzekoa delako.



@kontseilua



@kontseilua



Euskalgintzaren Kontseilua



www.kontseilua.eus